



2023ko ZEZENKETAK

FESTEJOS TAURINOS 2023

Eduardo García Elosua

Esan daiteke, gaizki-ulertuen beldurrik gabe, Deban 2023ko San Roke jaietan ospatu ziren zezen-ikuskitzuek erabateko arrakasta izan zutela. Lehenik eta behin, ikusle asko bertaratu zelako ikuskizun guztietara, batez ere gazte asko; bigarrenik, nobilladek emaitza oso ona izan zutelako zaleentzat, bai hasiberrien emanaldi bikainagatik, bai Puerto San Lorenzoko eta Ventana del Puertoko zezenek eman zuten joko onagatik. Halaber, entzierroak eta plazako enbolatuak espero bezala gertatu ziren, nahiz eta hilaren 16an euria gogotik bota eta Marinelen egunean egin zen entzierroan gorabehera batzuk gertatu. Gainera, oso gustukoa izan zen errekorarik abuztuaren 18an eskainitako erakustaldia. Zezen-modalitate hori oso hedatuta dago Euskal Herri osoan, eta Gipuzkoan indarra hartzen ari da berriro. Izan ere, 2023ko urriaren 15ean Zaragozako Miserikordia zezen-plazan egin zen Espainiako XL errekorarik lehiaketan, txapel-dun atera zen Xabier Iturralde azpeitiarra Villabonako Ander Lizarralderekin batera, "Rastrerilla" larrabehiari hiru eraztun sartzea lortu baitzuten. Azken batean, guztiontzako festa biribila.

Salbuespen bakarra, eta, beraz, nota negatiboa, Umeen Egunekoa izan zen; izan ere, Eusko Legebiltzarrak animaliak babesteko indarrean jarritako araudia jarraituz, ezin izan zen abelburu suharrekin jokorik antolatu, eta umeen entzierroa kartoizko zezen-orgekin egin behar izan zen.

Zezen-ikuskitzuek abuztuaren 13an hasi ziren, 18:00etan, urte batzutan egin gabe egon eta gero berreskuraturako ikuskizun bikoitz batekin: zezen-plazan zezenen desen-kajonamendua eta, ondoren, entzierrotxo Osioko ikui-luetara. Arrakasta handia izan zuen publikoaren aldetik, seihun lagun inguru bertaratu ziren plazara aurrez sarrera erosi ondoren, eta entzierrotxoaren ibilbidean zehar, bai kaleetan eta baita etxeetako balkoietan ere, jende kopuru handia bildu zen. Debarren artean ikuskizun horrek sortzen duen ikusmina ikusita, datozen urteetan mantentzea mereziko luke.

Se puede afirmar, sin temor a equívocos, que los festejos taurinos celebrados en Deba durante las fiestas patronales de San Roque del pasado año 2023 fueron un rotundo e incontestable éxito. En primer lugar, porque asistió mucho público a todos los espectáculos, sobre todo mucha gente joven; en segundo lugar, porque las novilladas tuvieron un resultado global muy satisfactorio para las aficionadas y para los aficionados, tanto por la gran actuación de los noveles novilleros como por el buen juego que dieron los erales del Puerto de San Lorenzo y de la Ventana del Puerto. También porque los encierros y la suelta de reses emboladas en la plaza discurren por los cauces previstos a pesar de la intensa lluvia caída el día 16 y de que se produjeran algunas incidencias en el encierro que se celebró el día de los marineros y, además, porque gustó mucho la exhibición brindada por los recortadores el día 18 de agosto. Esta modalidad taurina, muy extendida en el conjunto del País Vasco, está volviendo a coger fuerza en Gipuzkoa. De hecho, en el XL campeonato de España de recortadores de anillas, celebrado el 15 de octubre de 2023 en la Plaza de Toros de la Misericordia de Zaragoza, salieron campeones el azpeitiarra Xabier Iturralde junto a Ander Lizarralde de Villabona, al conseguir introducir tres anillas a la vaca "Rastrerilla". En definitiva, una fiesta redonda para todos y para todas.

La única excepción, y por tanto la nota negativa, fue la del día del niño ya que, por la actual normativa de protección animal aprobada en el Parlamento Vasco, no se pudieron organizar juegos con reses bravas y el encierro infantil se tuvo que hacer con los carretones de cartón con figura de toro.

Los festejos taurinos tuvieron su inicio el día 13 de agosto a las 18:00 horas con un doble espectáculo recuperado: el desencajonamiento de los novillos en la plaza de toros y el posterior encierro a los corrales de Osio. Fue un éxito de público, no sólo por la asistencia de cerca de seiscientas personas a la plaza, que previamente pasaron por taquilla, sino por la cantidad de gente

Ohikoa den bezala, ospakizunen antolaketa bikaina izan zen, toreatzaileek, hareatzariek, makulariek, aguaziltxoak, musika bandak, Lizarrako gaiteroek eta ospakizunen garapen egokia bermatzeko parte hartu zuten gainerako pertsonak bikain bete baitzituzten euren zereginak. Hori egiaztatzeko, interesgarria iruditzen zait azaltzea Sevillako zezen-eskolako arduraduna den Luis de Pauloba zezen-hiltzaile ohia, Javier de Zulueta nobilleroarekin batera etorri zela, eta Debatik alde egin baino lehen, nobilladen antolakuntzaren pisua eraman zuten pertsonak zoriondu eta berdin jarraitzeko adierazi zela: "denbora daramate oso ondo egiten, eta hori jakina da zezen-eskoletan".

Hala izatea espero dugu, nahiz eta ez den lan erraza izango **Raimundo Amutxastegi** antolaketakako arduradun nagusia ordezkatzeko. Izan ere, erretiroa hartzea erabaki du Debako Udalean 37 urte baino gehiagoz zerbitzua eskaini ondoren, eta zezenketen antolaketan, bere lan onaz gain, bere zezen-zaletasunagatik dituen ezagutzak ere eman baititu.

Zezenketak

Urtero bezala, San Roke jaietan, Foruen Plaza, Udaltzeko Plaza edo Plaza Berria eraldatu egiten da. Burdinazko eta egurrezko egitura bereziekin, zezen-plaza ez-iraunkorra muntatzen da. Bertan ospatzen dira hainbat jai ikuskizun, eta, horien artean, pikatzailerik gabeko bi nobillada. Horrela, denboran galtzen den tradizioari leial mantentzen da Deba eta, Zestoarekin batera, toreatzaile hasiberrientzako promoziorako babesleku bihurtzen da, zezenek gure kulturarekin antzina-antzinako harremana izan dutela erakutsiz. "Por la Tierra del Toro" orrian, nobilladen kartelen aurkezpena iragarri zen, alde aurreko iruzkin batekin: *"Zezenekin taupadaka dabilen Gipuzkoako bihotza irudikatzen du Debako udalerrriak. Horrela, urtez urte, uda garaian, tauromakia betikotzen dute, egiten dituzten zaldirik gabeko bi nobilladekin plaza nagusia betez"*.



Joaquín Caro

que se congregó en las calles a lo largo del recorrido del encierro y también en los balcones de las viviendas. La expectación que crea entre la gente de Deba este espectáculo aconseja su mantenimiento en los próximos años.

Como viene siendo habitual, la organización de los festejos fue excelente, cumpliendo de forma sobresaliente sus tareas los torileros, los areneros, los mulilleros, el alguacilillo, la banda de música, los gaiteros de Estella y el resto de las personas que intervinieron para garantizar el buen desarrollo de los festejos. Para confirmarlo, me parece de interés dejar testimonio de que Luis de Pauloba, ex-matador de toros que está a cargo de la escuela taurina de Sevilla y que vino acompañando al novillero Javier de Zulueta, se despidió de Deba felicitando a las personas que llevaron el peso de la organización de las novilladas invitándoles a que sigan igual porque "llevan tiempo haciéndolo muy bien y eso se sabe en las escuelas taurinas".

Confiemos que así ocurra, aunque no será tarea fácil sustituir al principal responsable de la organización, **Raimundo Amutxastegi**, que ha decidido jubilarse después de haber prestado sus servicios al Ayuntamiento de Deba durante más de 37 años y que, en la organización de los festejos taurinos, además de su buen hacer, ha aportado su conocida afición.

Las novilladas

Como cada año, durante las fiestas de San Roque, la Plaza de los Fueros, la Plaza del Ayuntamiento o Plaza Nueva como es popularmente conocida, se transforma. En ella se levanta, con su característica estructura de hierro y madera, una plaza de toros no permanente, donde se celebran una parte de los actos festivos y entre ellos, dos novilladas sin picadores. De esta manera, Deba se mantiene fiel a una tradición que se pierde en el tiempo y, junto con Zestoia, se convierte en un bastión de promoción para los aspirantes noveles a toreros, demostrando que los toros han tenido una relación ancestral con nuestra cultura. En la página "por la Tierra del Toro" se anunció la presentación de los carteles de las novilladas con un comentario previo que decía: *"El municipio de Deba representa el corazón de Guipúzcoa que late con los toros. Así perpetúa año tras año la tauromakia con dos novilladas sin caballos que llenan su plaza mayor en pleno período estival"*.



Tomás Bastos

Bi zezenketetan aholkulari artistiko-taurinoa **Luis Mari Pastor** izan zen, eta **Isidro Aristi** albaitari aholkularia. Urtero bezala, agintarien balkoian, Salamancako ganadutegiko ordezkariak egon ziren, aurtan **Lucia Fraile Maceín** eta bere senarra **Carlos Sánchez Barbero**.

Daniel Sánchez Galán, Salamancako eskolakoa, izan zen bi ikuskizunetako sobresalientea, eta bietan nabarmendu zen kapotearekin egindako kiteetan.

Abuztuaren 16ko nobillada.

Tomás Bastos lusitaniarraren garaipen handia.

la beteta. Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzo ganadutegiko lau zezen toreatu ziren. Oso ondo aurkeztuak, joko eta portaera desberdinekin. Oso ona bigarrena, plazari bira eman zion, eta laugarrena oso txalotua herrestan eramaterakoan. Arratsaldeko lehena ere txalotua izan zen herrestan, eta hirugarrena, berriz, mantso arrazaduna izan zen.

Joaquín Caro, Madrilgo zezen-eskolakoa, gorriminez eta urrez jantzita. Isiltasuna kontrako eta aurreko ezpatakada eta bost aldiz deskabellatu ondoren. Abisua. Bigarrenean, zezenak jaurti egin zuen ziztada sakona, eta estokada-erdia kontra samarrekoa. Agurra, abisua jaso ondoren.

Tomás Bastos, Badajozeko eskolakoa, urdin zerutiarrez eta urrez. Belarria bere lehenengoan abisua jaso ondoren, estokada erdi eroriarekin kitatu baitzuen, aurretik bi ziztada sartuta; eta bi belarri eta buztana, sari handiegia, plaza itxi zuen zezenean. Lehendakariaren abisu bat jaso zuen hiltzeko lantzeari ekin aurretik, ezpatakada on batekin hil zuen.

Ikuskizuneko lehendakari izateko ardua **Xabier Azkoitia** herriko zezen-zale iaioak hartu zuen. Ikusle askok gehiegizkotzat jo zuten plaza itxi zuen zezenean buztana ematea. Une batzuetan, agintarien balkoian distrakzioen bat antzeman zen.

Joaquín Carok, Madrilgo José Cubero "Yiyo" zezen-eskolako nobillero perutarrek, ez zuen zozketan zori handirik izan, loterik zailenari aurre egin behar izan baitzion. Arratsaldeko lehena toreatzeko joko asko zeukan zezenko zaila izan zen, eta perutarrek dohain handia erakutsi zuen. Kapotearekin ez zuen distirarik egin, eta banderilleatu zuenean, nahastea sortu zen plazan. Jendeari eskaini zion faena, eta muletarekin, oro har, lan serio eta ona egin zuen, serie luzeekin eta geldiekin, bi pitoiekin, sakonago ezkerrekoarekin, beti tokian ondo jarrita, eta bernardina estuekin amaitu zuen lana. Nobillero papera bete-betean betez, ikusleekin konektatu zuen, eta publikoaren zati handi bat zutik jartzea lortu zuen, pase sakonak eman beharrean lantze eraginkorrak egin zituen, zezena batetik bestera ibiliz. Kapotean eta deskabelloan ahul ibili zen.

Bere loteko bigarrena, arratsaldeko hirugarrena, zezenko mantsoa izan zen, ibiltaria, muleta-pase bakoitzaren irteeran oholak bilatzen zituen. Kapotearekin ere ez zuen distirarik egin. Banderilletan, koadrilako banderillero batekin txandakatu zen, eta pare bat goien-goienean jarri zuen; feriako parerik onena izan zen. Lehendakariari banderilleatzeko baimena eskatu zion, baina ez zion eman. Faena publikoari eskaini ondoren, zezenari urru-

El asesor artístico-taurino de las dos novilladas fue **Luis Mari Pastor** e **Isidro Aristi** fue la persona que ejerció las funciones de asesor veterinario. Como cada año, en el balcón de autoridades, hubo una representación de la ganadería salmantina, este año con la presencia de **Lucía Fraile Maceín** junto a su marido **Carlos Sánchez Barbero**.

Daniel Sánchez Galán, de la escuela de Salamanca, fue el sobresaliente en los dos festejos, destacando con el capote en los quites que realizó en las dos novilladas.

Novillada del 16 de agosto.

Gran triunfo del lusitano Tomás Bastos.

Casi lleno. Se lidiaron cuatro erales de la ganadería del Puerto de San Lorenzo, de Tamames (Salamanca). Muy bien presentados, con diferente juego y comportamiento. Muy buenos el segundo, que fue premiado con la vuelta al ruedo, y el cuarto muy aplaudido en el arrastre. Con mucho que torear el primero de la tarde, también aplaudido en el arrastre, y el tercero fue un manso enrazado.

Joaquín Caro, de la Escuela Taurina de Madrid, de rojo carmesí y oro. Silencio tras estocada contraria y delantera y 5 descabellos. Aviso. En el segundo, pinchazo hondo que escupe y más de media algo contraria. Saludos después de recibir un aviso.

Tomás Bastos, de la Escuela de Badajoz, de azul celeste y oro. Oreja tras aviso en su primero al que pasaportó con media estocada caída después de dos pinchazos previos; y dos orejas y rabo, muy generoso, en el que cerró plaza. Recibió un aviso de la presidencia antes de entrar a matar, lo que hizo después de una buena estocada.

La presidencia del festejo recaía en el buen aficionado local **Xabier Azkoitia**. Una parte importante del público consideró excesivo que concediera el rabo en el novillo que cerró plaza. En ciertos momentos, se observó alguna distracción en el balcón de autoridades.

Joaquín Caro, novillero peruano de la Escuela Taurina José Cubero "Yiyo" de Madrid, que abría el cartel, no tuvo mucha fortuna en el sorteo, ya que tuvo que lidiar con el lote más difícil. El primero de la tarde fue un novillo complejo que tenía mucho que torear, y el peruano demostró sobradas cualidades. No brilló con el capote y, cuando banderilleó, hubo un cierto desbarajuste en la plaza. Brindó al público y con la muleta hizo, en general, una faena seria y bien construida con series largas y templadas por los dos pitones, con mayor profundidad por el pitón izquierdo, siempre bien colocado, culminando la faena con unas ajustadas bernardinas. Estuvo en novillero y conectó con los tendidos, levantado a parte del público de sus asientos, en los momentos en los que buscó el camino de los pases más efectistas que profundos, pasándose el eral por todos los sitios. En su debe, el toreo de capote y el descabello.

El segundo de su lote, tercero de la tarde, fue un novillo muy manso y andarín que buscaba las tablas a la salida de cada muleta. Tampoco brilló con el capote. En banderillas, alternó con uno de sus banderilleros de cuadrilla y puso un par en todo lo alto que fue el mejor par de toda la feria. Pidió permiso a la presidencia para volver

titik deituz ekin zion lanari. Zezenkoaren zailtasunek, bitzita jokatu behar izatera eraman zuten, toreorako gaitasun handia erakutsiz eta beti bere aurkariarekin oso gurutzatuta. Hiru serie on lortu zituen, horietako bat ezkerreko adarretik, zezena plazaren erdian mantentzea lortu zuen une baketan. Onik irten zen nobleziarik gabeko zezen zorrotz hartatik; bere baldintzen arabera tratua eman zion.

Tomás Bastos, portugaldar promesa, Vilafranca de Xirakoa da. Badajozeko zezen-eskolakoa. Ikuskizuneko izen nagusia izan zen. Arratsaldeko lehenengoari egin zion kitean, bere kalitatea eta arrakasta izateko gogoia utzi zituen agerian. Eta, gainera, bi zezen ederrei aurre egiteko zortea izan zuen. Bere loteko lehenengoan, beronikara toreatuz distiratsu ibili zen, eta aurretik egin zuen kitean ere nabarmendu zen, Joaquín Carok distirarik gabe egindakoari erantzuteko. Banderilletan gailendu zen, hiru pare on jarriz. Publikoari eskaini eta lanari ekin zion, plazaren erditik zitatuz belaunetik belaunerako paseak emateko, zezena gorputzetik benetan hurbil pasatuz. Lan handia egin zuen bi adarretan serie luze eta geldiak eginez, bularreko pase bikainez errematatuak.

Arratsaldeko laugarrenean, kapotearekin hartu zuenean, zezenak harrapatu egin zuen, burladeroaren kontra kolpe latza hartuta, baina, harrigarria izan bazen ere, ondoriorik gabe. Beronika paseekin nabarmendu zen berriz, eta, kolpeak zorabiatuta ere, banderillak jarri zituen berriro. Ikusleei eskaini ondoren, muleta-lanari ekin zion belauneko multzo oso estu batekin, eta toreroen jarrera desafiataile horietako batekin amaitu zuen. 16 urteko nobillero bati ez dagokion kalitatea, tenplea eta heldutasuna erakutsi zituen. Gustu handiz toreatu zuen bi adarretatik, eta, plazan gozatzen ari zenez, gehiegi luzatu zuen lana. Lehendakariak abisua eman zion hiltzera sartu aurretik. Ezpata sartu ondoren, bi belarriak eman zizkieten, baina nahasmen handia sortu zen, ikusle batzuk ez baitzekiten bigarren belarri hori eman zioten ala ez, eta saria eskatzen jarraitzen zuten. Beste ikusle talde batek, nire ustez gutxiengoak, buztana eskatu zuen, eta azkenean eman egin zioten. Neurritz gaineko saria izan zen argi eta garbi, lehen zezenaren merezi ahalko zukeen, altzairuekin ongi aritu izan balitz.

a banderillear, pero no le fue concedido. Tras el brindis al público, inició la faena citando al novillo de lejos. Dadas las dificultades que presentaba el eral, tuvo que jugarse el tipo, mostrando una gran capacidad lidiadora y estando siempre muy cruzado con su oponente. Consiguió tres buenas series, una de ellas por el pitón izquierdo, en los pocos momentos en los que consiguió mantener al novillo en el centro de la plaza. Salió airoso ante un eral exigente y carente de nobleza al que dio el trato adecuado a sus condiciones.

Tomás Bastos, promesa portuguesa, natural de Vilafranca de Xira. Pertenece a la Escuela taurina de Badajoz. Fue el nombre propio del festejo. Ya en el quite que realizó al primero de la tarde dejó patente su calidad y disposición para triunfar. Y, además, tuvo la suerte de enfrentarse a dos muy buenos novillos. En el primero de su lote, se brilló toreando a la verónica y también destacó en el quite que hizo para responder al que previamente realizó, sin brillantez, Joaquín Caro. Se lució en banderillas colocando tres buenos pares. Brindó al público e inició la faena citando desde el centro de la plaza para dar unos pases cambiados de rodillas, pasándose el novillo realmente cerca. Hizo una gran faena con series largas y templadas por los dos pitones, rematadas con unos excelentes pases de pecho.

En el cuarto de la tarde, al recibirlo con el capote, fue arrollado por el novillo sufriendo un duro golpe contra el burladero que, sorprendentemente, no tuvo consecuencias. Volvió a destacar su toreo a la verónica y, aún aturcido por el golpe, volvió a poner banderillas. Tras brindar al público, comenzó la faena de muleta con una serie de rodillas muy ajustada y que finalizó con un desplante muy torero. Mostró calidad, temple y una madurez impropia de un novillero de 16 años. Toreó con mucho gusto por los dos pitones y, como estaba disfrutando en la plaza, alargó demasiado la faena y fue avisado por la presidencia antes de entrar a matar. Después de la estocada, se le concedieron las dos orejas, pero se creó una gran confusión porque parte del público, no sabía si se le había concedido o no la segunda oreja y la seguía pidiendo. Otro sector, a mi entender minoritario, pidió el rabo que, al final le fue concedido. Un rabo exagerado a todas luces y que, sin embargo, lo habría merecido en el primer novillo si hubiera estado acertado con los aceros.



Edonola ere, etorkizun handiko nobillero baten aurrean gaude. Asmo handiak ditu eta Badajozeko eskolan irakasle den Luis Reina maisuarengandik ikasten duen guztia erakusten ari da. Egia esan, plazara gerturatu ziren zaleak liluratu zituen eta jarraitu beharreko nobillero bat dela erakutsi zuen, tertzio guztiak menderatzeaz gain, toreatzaile ona delako eta etorkizuneko zezen-hiltzaile izatera irits daitekeelako. Dagoeneko, Olivenzako ferian egin du debuta zaldiekin. Cristina Sánchez zezen-hiltzaile ohia du ahaldun.

Hilaren 18ko nobillada.

Ate handia "El Mene" eta Javier Zulueta-arentzat.

Plaza beteta. Salamancako La Ventana del Puerto ganadutegiko lau zezen toreatu ziren. Oso ongi aurkeztuak. Nobillada serio bat, zailtasunen batekin, baina, oro har, joko ona eman zuten ñabardura desberdinekin. Zezenkoek nobilleroak arrakastatsu aritzeko balio izan zuten. Laurak izan ziren herrestan txalotuak.

Iker Fernández "El Mene", Salamancako zezen-eskola-koa, pastel kolore urdinez eta urrez. Txalo zaparrada bere lehenengoan, abisua jaso ondoren. Hiru ziztada, atzeko eta kontrako ezpatakada bat eta behin deskabellatu ondoren hil zuen. Bi belarri bere bigarren zezenean, ezpatakada batez hil zuen.

Javier Zulueta, Sevillako zezen-eskolakoa, gris perlaz eta urrez. Bi belarri arratsaldeko bigarrenean, estokada erdi batez hil zuen, oso leku onean, bat-batekoa izan zen. Plaza itxi zuen zezenean, agurrean txalo zaparrada, ziztada eta ezpatakada bat sartu ostean.

Blanca Vilallonga nobilladako presidente izan zen, ondo aritu zen bere funtzioan, nahiz eta sariak ematerakoan nahiko eskuzabala izan. **Javier de Cárdenas y Chavarri** izan zuen lagun *Deba 100 hitzetan eta kale margo lehiaketetako* babeslea.

"El Mene" Zaragozako izan arren, Salamancako eskolako ikaslea da. Beronikak ondo egin zituen, erdizka batekin errematatuz. Zezena ondo toreatu eta banderilleatu zuen. Ikusleei eskaini zien, eta eskuineko adarretik soiltasunez toreatu zuen, gehiago kostatu zitzaion ezkerreko adarretik, zezenak ibilbide txikiagoa zuelako eta eraso lausoa egiten zituelako. Zaila egin zitzaion zezena gelditzea, eta horrek eragotzi zion patxadaz toreatzea, baina zezenaren eraso eusteko gaitasuna erakutsi zuen.

En cualquier caso, estamos ante un prometedor novillero que apunta muy alto, demostrando todo lo que está aprendiendo del maestro Luis Reina, profesor en la Escuela de Badajoz. Lo cierto es que encandiló a la afición que acudió a la plaza y demostró que es un novillero a seguir porque, además de dominar todos los tercios, es un buen lidiador y puede llegar a ser un torero del futuro. De momento, ya ha debutado como novillero con caballos en la feria de Olivenza. Tiene como apoderada a la ex-matadora de toros Cristina Sánchez.

Novillada del día 18.

Puerta grande para "El Mene" y Javier Zulueta.

Plaza llena. Se lidiaron cuatro novillos de la ganadería salmantina La Ventana del Puerto. Muy bien presentados. Una novillada seria con alguna complicación pero, en general, dieron buen juego con distintos matices y sirvieron para que triunfaran los novilleros. Los cuatro fueron aplaudidos en el arrastre.

Iker Fernández "El Mene", de la Escuela taurina de Salamanca, de azul pastel y oro. Ovación con saludos tras aviso en su primero, al que mató después de tres pinchazos, una un descabello. Dos orejas en su segundo novillo al que mató de una estocada.

Javier Zulueta, de la Escuela taurina de Sevilla, de gris perla y oro. Dos orejas en el segundo de la tarde al que mató de una media estocada, en muy buen sitio, que fue fulminante. En el que cerró plaza, ovación con saludos tras pinchazo y estocada.

Presidió la novillada **Blanca Vilallonga** que estuvo bien en su función, aunque algo dadivosa a la hora de conceder trofeos. Estuvo acompañada por **Javier de Cárdenas y Chavarri**, mecenas de los concursos de pintura y "Deba en 100 palabras".

"El Mene" es un novillero zaragozano pero es alumno de la Escuela de Salamanca. Toreó bien a la verónica rematando con una buena media. El novillo fue bien lidiado y banderilleado. Brindó al público y toreó con sobriedad por el pitón derecho y le costó más por el pitón izquierdo, por donde el novillo tenía menos recorrido y embestidas más inciertas. Le costó parar al novillo y eso le impidió torear con quietud, pero demostró capacidad de aguantar las embestidas.



Iker Fernández "El Mene"



Javier Zulueta

Bere bigarren aurkariarekin nabarmendu zen, publikoari eskaintza egin ondoren, lan ona egin zuen, hobetzen joan zen, naturaltasuna erakutsi zuen toreatzeko modu bertikal eta klasikoarekin, nabarmentzekoak dira ikusleek gustukoak izan ziren trintxera pase ederrak. Patxada erakutsi zuen arren, ez zitzaion kuraia falta izan. Azken batean, irudi ona eman zuen eta etorkizunean lekua izan dezake. Joan den otsailaren 12an egin zuen debuta pikatzaileekin Ciudad Rodrigoko Carnaval del Toroko nobillada batean, eta bi belarri moztu zizkion zezen bati. Andres Sánchez zezen-hiltzaile ohiak ahalduntzen du; azken horrek Deban toreatu zuen, bai nobillero gisa, eta bai jaialdi batean zezen-hiltzaile moduan ere.

Javier Zulueta ere bere lehen zezena publikoari eskaini zion. Kapotearekin, beronikak toreatuz aurkeztu zen. Muletarekin bere loteko lehengoan lan bikaina egin zuen, eta ikusleek zoramena eragin zuen. Faena plastikotasunez beterik egon zen, bi adarretatik toreatu baitzuen eskua baxu, sakontasunez, gozatuz eta loturaz. Plaza bete zuten zaleentzako gozamina izan zen.

Bigarren zezenean, bere maila egiaztatu zuen berriro. Beronikara oso ondo toreatzen jarraitu zuen, poliki-poliki eta urrats geldian sartutako erdizka batez errematatuz. Muletarekin serie onak eman zituen eskuineko adarretik, zezenen oldarraldia asko luzatuz. Esku aldaketa oso onak egin zituen muletarekin. Naturelean toreatuz ere sendo ibili zen, baina ezpatarekin gaizki aritu zenez sariak galdu zituen.

Pikatzaileekin nobilladetan nabarmentzen ari da jada. 2024ko martxoaren 3an egin zuen debuta pikatzaileekin Olivenzako ferian. Nobillada hartan, eta, lehen aipatu bezala, Tomás Bastosek ere egin zuen debuta kastorezkoekin. Javier Zulueta Sevillan jaio zen, eta zezenen munduari oso lotuta dago. Bere aita, osaba eta arreba Sevillako Errege Maestranzako aguaziltxoak dira, Gabriel Rojas abelburu suharren ganaduzalearen iloba da eta, amaren aldetik, Enrique "Lebrija"ren biloba da, plaza bereko puntilleroa izan zena 2002tik 2017ra. Aurrekari horiekin, badirudi dena alde duela zezen munduan figura ospetsu izateko. Ramon Valenciak zuzentzen duen Casa Maestranza Pagés ahalduntzen du.

Debako zezenketek arrakasta handia izan dute antolaketarik bikainagatik, plazaren eta ikusleek seriotasunagatik, ganaduaren kalitateagatik eta parte hartu duten nobilleroen mailagatik. Horren adierazle da pikatzailearik gabeko "Sureste de Madrid" nobilleroen II. lehiaketako irabazlea "El Mene" izan zela, bigarren Javier Zulueta eta hirugarren Tomás Bastos.

Destacó en su segundo enemigo al que, tras brindar nuevamente al público, hizo una buena faena, de menos a más, dando sensación de naturalidad con un toreo vertical y clásico, destacando unos bellos trincheros que fueron del gusto del público. Mostró un toreo pausado al que no le faltó el valor. En definitiva, dejó buenas sensaciones y puede hacerse un hueco en el futuro. Ha debutado en una novillada con picadores el pasado 12 de febrero en Ciudad Rodrigo, en el denominado Carnaval del Toro, cortando 2 orejas a un novillo. Le apodera el ex-matador de toros Andrés Sánchez, que toreó en Deba como novillero y como matador en un festival.

Javier Zulueta, que también brindó su primer novillo al público. Con el capote, toreando por verónicas dejó su carta de presentación. Con la muleta, cuajó una gran faena a este primero de su lote, haciendo las delicias del público. La faena estuvo llena de plasticidad ya que toreó por los dos pitones con mano baja, hondura, temple y ligazón. Un deleite para los aficionados que llenaron la plaza.

En su segundo novillo volvió a dejar constancia de su categoría. Siguió toreando muy bien a la verónica, con gran despaciosidad y rematando con una media a cámara lenta. Con la muleta, dio buenas series por el pitón derecho, alargando mucho la embestida de los toros. Hizo unos muy buenos cambios de mano con la muleta. También cuajó toreando al natural, pero perdió los trofeos por el mal uso de la espada.

Está ya destacando como novillero con picadores. Debutó con picadores en la feria de Olivenza el pasado 3 de marzo de 2024, en una novillada en la que, como ha quedado señalado, también debutó con los castoreños Tomás Bastos. Javier Zulueta, nacido en Sevilla, está muy ligado al mundo de los toros. Su padre, su tío y su hermana son alguacilillos de la Real Maestranza de Sevilla, es sobrino del ganadero de reses bravas Gabriel Rojas y nieto, por parte de madre, de Enrique "Lebrija", puntillero de la misma plaza desde el año 2002 al año 2017. Con estos antecedentes, parece tener todo a favor para ser figura del toreo. Le apodera la Casa Maestranza Pagés dirigida por Ramón Valencia.

Un rotundo éxito de los festejos taurinos de Deba por la excelente organización, por la seriedad de la plaza y del público, por la calidad del ganado y por la categoría de los novilleros que han actuado. Sirva de ejemplo: en el II Certamen de novilleros sin picadores "Sureste de Madrid", celebrado con erales de saltillo, el ganador fue "El Mene", siendo el segundo puesto para Javier Zulueta y el tercero para Tomás Bastos.